Estratégica, situó el Plan Estratégico de Género como uno de los retos centrales del sindicato de cara a los próximos cuatro años: “La equidad de género es un objetivo estratégico propio y todos los demás deberán pasar el filtro de género, haciendo una lectura de género en todos los objetivos de la organización”. “Somos un sindicato más feminista, esto no tiene vuelta atrás. Hemos diseñado los planos del camino y lo recibimos con mucha ilusión”. ■



Las tres Federaciones de ELA celebran sus Congresos en junio

»» ZERBITZUAK

KONGRESU FEDERALA
CONGRESO FEDERAL

2022ko ekainak 14 · Kursaal · DONOSTIA



arrakalatik berdintasunera!

¡de la brecha
a la igualdad!



PERMANENTE: Ezkerretik eskuinera eta aurretik atzera: **Hodei Blasko, Maricruz Elkoro** (idazkari nagusia), **Uribarri Irigoras, Itziar Larrazabal, Janire Ornes, Egoitz Iturbe** eta **Idoia Elustondo**. **Pablo Sánchez** falta da.

Datorren ekainaren 14an, Donostian, 199 biltzarkidek (gehienak emakumeak) Zerbitzuak federazioaren (zerbitzu pribatuak) ildoak eztabaidatuko dituzte datorren laurtekorako. Bide beretik, Batzorde Iraunkorra, hau da, federazioaren zuzendaritza aukeratu dute.

Egungo idazkari nagusi Mari Kruz Elkorok berriro aurkeztuko du bere burua. Azaldu duenez, kongresuaren oinarrian izango da azken 4 urteetan sektore feminizatueta izandako prekaritatearen eta soldata arrakalaren aurkako borroka. "Bide horretan aurrera egingo dugu", aurreratu du.

Biltzarkideek lau ebazpen eztabaidatu eta onartuko dituzte. Ebazpen horiek ezarriko dituzte federazioaren etorkizuneko lanaren oinarriak: Arrakalatik berdintasunera; Taldeen antolaketa, funtsezkoa gure antolaketa ereduan; Estatalizazioaren aurrean, sindikalismo aldarrikatzailea; eta sektoreko negoziazioaren blokeoa gainditzea eta prekaritatearen aurkako borroka aktibatzea.

Kongresua barne egoera ezin hobean iritsi da. Azken laurtekoan, Zerbitzuak federazioak 2.726 afiliatu gehiago izan ditu, horietatik 2.113 emakumeak. Zerbitzuak federazioaren pisuak puntu eta erdi egin du gora konfederazio osoan. Gainera, 2.113 alta horietatik 1.341 35 urtetik beherako langileak dira. Afiliazio hazkundearen zatirik handiena merkataritzaren, garbikuntzaren eta ostalaritzaren sektoreetatik -oso sektore feminizatuak- dator. Izan ere, federazioko afiliazioaren ia %62 emakumeak dira.

Soldata arrakalaren aurkako borroka

Eta kongresu arteko aldia afiliazioan positiboa izan bada, ordezkaritzan ere positiboa izan da. ELAK %39ko ordezkaritza du EAEn; Nafarroan, berriz, %20ko langa gainditu du, eta goranzko bidean doa. Izan ere, Foru Erkidegoan hautatutako ordezkarri berrien %48 ELAkoa izaten ari da.

Laurteko honetan negoziazio kolektiboaren papera ere azpimarratu behar da. Sektore,

enpresa eta lantoki mailako ehun greba inguru egin dira, pandemiaren eta konfinamenduaren urte luzea gorabehera, eta funtsezko sektoreetan greba eskubidea oso mugatuta egon bada ere.

Mari Kruz Elkorok bereziki azpimarratu du garbikuntzan soldata arrakalaren aurka egindako borroka. "Pausu garrantzitsuak eman dira eta, aldi berean, beste borroka askotarako bidea markatu da. Greba gogorak izan dira, oso luzeak, eta lorpen garrantzitsuak izan ditugu, bai soldata igoerei dagokienez, bai kontratuen partzialtasunari muga jartzeari dagokienez ere", azaldu du.

ELA aitzindaria izan da soldata arrakalaren aurkako borroka horiek planteatzen; hitzetatik ekintzetara igarotzen lehena izan da, eta, gehienetan, bakarrik eraman ditu aurrera.

Hori nahikoa ez balitz, Zerbitzuak federazioko idazkari nagusiak nabarmendu duenez, "enpresetan gertatu diren aldaketa horiek mahai sektorialetan ere aldaketak eragiten dituzte". ■

»» INDUSTRIA eta ERAIKUNTZA

KONGRESU FEDERALA / CONGRESO FEDERAL

2022ko ekainak 16 - Europa Jauregia- GASTEIZ



eraldaketa aktibatu!

¡activa el cambio!



PERMANENTE: De izquierda a derecha y de adelante hacia atrás: **Irati Bañuelos, Unai Martínez** (secretario general), **Hodei Blasko, Mikel Etxebarria, Esther Arruti, Arrate Elkoro y Sergio Vázquez**.

El próximo 16 de junio se celebrará en el Palacio Europa, de Gasteiz, el III Congreso de la Federación de Industria y Construcción bajo el lema "Eraldaketa Aktibatu. Activar el cambio". Durante la jornada, 376 delegados/as debatirán las líneas de actuación de la federación el próximo cuatrienio y elegirán a la nueva dirección.

Unai Martínez, actual secretario general, explica que se trata de un Congreso tanto de continuidad como de transformación. "De continuidad porque seguimos apostando por una negociación colectiva que reparta la riqueza, porque seguimos peleando por el empleo, porque seguimos situando la lucha contra la precariedad en todas sus vertientes en el centro de nuestra acción sindical. Nada de eso cambia", explica.

"Y de transformación -continúa- porque en un sector y en una federación predominantemente masculinos estamos haciendo una apuesta decidida por la visión de género. A nivel interno

hemos transformado los equipos responsables y estamos caminando hacia la paridad: la combinación de géneros y edades en los equipos comarcales creados es muy interesante y está cargada de potencialidades", destaca Martínez.

Las personas congresistas debatirán y aprobarán cuatro resoluciones, que pondrán las bases del trabajo futuro de la federación: Negociación colectiva; Política industrial; Organización y Por el derecho a trabajar sin discriminaciones: colectivos LGTBI+, emigrantes, trabajadores/as precarios...

Este Congreso llega en un momento interno de plena recuperación para Industria y Construcción. Tras la crisis y la pandemia, empiezan a ver resultados positivos en afiliación. Por lo que se refiere a los resultados de elecciones sindicales en este cuatrienio, ELA-Industria y Construcción ha crecido aún más en la CAPV, pero no tanto en Navarra. "Estamos trabajando a tope para darle la vuelta".

Martínez explica que la lucha contra la precariedad está marcando la negociación de los convenios. "Hay carga de trabajo y los beneficios empresariales son un frenesí. Lo que sobra es precariedad", afirma Martínez, para denunciar, a continuación, que el sector de la Construcción en sí mismo es precariedad porque ni Administración ni Inspección hacen nada para evitarlo.

Una precariedad que se ceba en algunos colectivos más que en otros; un hecho ante el que el sindicato no puede cerrar los ojos. "Una parte importante de la transformación del sindicato y del sector será luchar para superar las discriminaciones, la precariedad que sufren las mujeres, las personas emigrantes, con diversidad funcional, el colectivo LGTBI+... Son muchos retos que afrontamos con ilusión", asegura.

Finalmente, Unai Martínez, en plena polémica sobre la referencialidad del IPC en los convenios aclara que ELA va a pelear por incrementos salariales por encima de este índice. "No vamos a renunciar; y va a haber conflictos, seguro". ■

Las tres Federaciones de ELA celebran sus Congresos en junio

»»» GIZALAN

KONGRESU FEDERALA
CONGRESO FEDERAL

2022ko ekainak 15 · Kultur Etxea · BURLATA



guztiona lehen lerrora!

¡lo común
ante todo!



PERMANENTE: Ezkerretik eskuinera eta aurretik atzera: Igor Eizagirre (idazkari nagusia), Iratxe Mier, Urdax Bañuelos, Eba Arrieta, Aintzane Orbegozo, Julio Fombellida, Izai Bujanda, Ane Bilbao, Esther Saavedra, Miren Zubizarreta eta Txomin Lasa. Uxue Mingo falta da argazkian.

Datorren ekainaren 15ean, Gizalanek, ELAren zerbitzu publikoen federazioak, V. Kongresua egingo du Burlatan (Nafarroa), 'Guztiona, lehen lerrora. Lo común, ante todo' lelopean. 238 biltzarkidek eztabaidatu eta onartuko dituzte hurrengo laurtekoan federazioaren ildo estrategikoak markatuko dituzten lau ebazpenak: gatazkei modu ordenatuan aurre egitea gure esku dago; ELAn lehen lerrora eramango dugu euskaraz lan egiteko eta bizitzeko eskubidea; Zerbitzu publikoak, gizartearen oinarriko beharrak bermatzen dituztenak; Euskal Herrian zaintza sistema publikoaren, doakoaren, unibertsalaren eta kalitatezkoaren alde. Halaber, Batzorde Iraunkor berria aukeratuko da, federazioa zuzenduko duen taldea.

Igor Eizagirre Gizalaneko idazkari nagusiak apimarratu du federazioa buru-belarri ari dela zerbitzu publikoen defentsan. Mobilizazioak ari dira egiten Osakidetzan, Hezkuntzan eta zaintza sektoreetan, zahar egoitzetan edo SADen, besteak

beste. "Azken bi urteetan pandemiak erabat baldintzatu du federazioaren lana. Zailtasunak zailtasun, gai izan gara egoera larri horri erantzuteko eta gure mezu eta ekintza sindikala egokitzeko. Gaur, inoiz baino gehiago, zerbitzu publikoak eta sektoreko langileen lan baldintzak defendatzeko erronka ezarri diogu gure bururari, zerbitzu horien kalitatea bermatzeko. Aldi berean, borrokan jarraituko dugu pribatizazio prozesuak atzera botatzeko", azaldu du.

Zerbitzu publikoak defendatu

Era berean, Gizalaneko arduradun nagusiak azpimarratu du sindikatuak zaintza publikoak, unibertsalak eta kalitatezkoak bultzatuko dituela. "Ildo horretan, Herri Ekimen Legegile bat planteatuko dugu eta, bitartean, sektoreko langileen lan baldintzak hitzarmenez hitzarmen indartzeko borrokatuko dugu".

Prekaritatearen aurka borrokatzeko, federazioa enplegu publikoak sendotzeko prozesuetan murgiltzen ari da, mobilizazioak deituz

sindikatuak ordezkari zabalaren duen tokietan. Gizalanek une onean ekingo dio biltzar berri horri, bai afiliazioari bai ordezkariari dagokienez. Afiliazioak gora egin du, batez ere, emakumeen artean eta federazioko sektore prekarioenetan, federazio osoaren %67 izateraino.

Ordezkariari dagokionez, Gizalan %44,15era iritsi da EAEn. Nafarroan 1,5 puntu egin du gora, eta sektore publikoko bigarren sindikatua izateko oso gertu dago. Sektore soziosanitarioak eskuratu ditu emaitzarik onenak hauteskundeetan eta afiliazioan; poliziak, berriz, okerrenak.

Azkenik, antolakuntza hobetu behar dela azpimarratu du Eizagirrek, etorkizunari begira federazioak dituen erronka ugarien artean hori baita nagusietako bat: lantokiak sindikalizatzea, militantziarekin lan gehiago eta hobea egitea eta militantei partaidetza handiagoa ematea. ■



Gorka Vierge

Responsable de ELA en La Sakana

¿Bajar impuestos? No, gracias

La semana que viene tengo cita para hacer la declaración de la renta; ya sabéis, junto con la visita anual al dentista, probablemente uno de los momentos de más congoja del año para cualquier persona. Quizá eso se explique porque en la sociedad hay un gran desconocimiento sobre el origen y el destino de los impuestos, de ahí que seamos una presa fácil para aquellos que quieren manipular este debate y obtener réditos políticos y económicos a corto plazo.

La crisis de la energía y la subida galopante de los precios durante esta primera parte del año han provocado que los partidos más conservadores hayan vuelto a poner en la agenda política las viejas y facilonas recetas liberales: bajar impuestos a todos para que el contribuyente tenga más dinero en el bolsillo.

Dicho así, a todo el mundo nos gustaría que nos bajasen los impuestos; ¡cómo no! Es por eso que personajes políticos de primera línea como Isabel Díaz Ayuso o Santiago Abascal enarbolan permanentemente la bandera de la reducción de cargas impositivas para ganarse las simpatías de las capas populares de la población. Pero claro, el problema surge cuando nos damos cuenta de que la bajada de impuestos -que, además, ellos centran fundamentalmente en las grandes empresas, fortunas y élites económicas- acarrea, irremediamente, el empeoramiento de los servicios públicos que ofrecen las instituciones. Y no podemos obviar que recortar los tributos beneficia a los más privilegiados y no alivia las estrecheces a familias y trabajadores y trabajadoras.

Porque hay que recordar que el objetivo prioritario de los impuestos es financiar el gasto que supone prestar los servicios públicos para atender las necesidades de

las personas. Por lo tanto, si las diferentes instituciones del Estado pierden capacidad de recaudar, empeorará progresivamente la dotación presupuestaria que se destina a sanidad, cultura, educación o protección social, con lo cual el impacto social negativo que se genera es irreparable.

Así que habrá que hacer frente a los cantos de sirena que tratan de seducirnos para que accedamos al empobrecimiento del estado del bienestar e interpelar a los gobiernos para que aborden una reforma fiscal ambiciosa en la que se penalice a quien más tiene, se establezcan tributos justos a las ganancias empresariales y se limiten drásticamente los extraordinarios beneficios que están obteniendo las grandes corporaciones de la energía, aprovechándose del esfuerzo de la sociedad. Reforma fiscal que debe de ir acompañada, sin duda, por un esfuerzo real para combatir el fraude y la elusión fiscal.

Deberíamos recordar que en aquellos lugares en los que se han acometido bajadas de impuestos generalizados ni se ha acelerado la creación de empleo ni el desarrollo económico ni, desde luego, el bienestar de las familias. Lo único que se logra, eso sí, es que los ricos paguen menos y, por lo tanto, se ensanche la brecha entre las rentas altas y las bajas.

Así que, cuando la derecha y la extrema derecha nos hablen de bajadas de impuestos, deberemos desconfiar y acordarnos de que el ambulatorio, las escuelas o el mantenimiento de la biblioteca deben de ser financiados, y que aquellos que más ganan tienen que ser los que más arrimen el hombro. ■



Leire Gallego
Responsable de Acción Social

Ante la derecha, más feminismo

La única regla que me importa es la regla de 3" - fueron las palabras de Isabel Díaz Ayuso en medio de la polémica sobre la Ley para la protección de los derechos sexuales y reproductivos y la garantía de la interrupción voluntaria del embarazo.

Esta es la neopolítica, medidas políticas y delaciones a golpe de titular. El Trumpismo ha llegado a España. Ayuso consiguió el 4 de mayo de 2021 más de 1,5 millones de votos, superando todos los récords del PP.

Está claro que cuando se trata de derechos para las mujeres o medidas feministas, la derecha y la ultraderecha siempre están en vanguardia del negacionismo. No sé por qué seguimos distinguiendo entre derecha y ultraderecha cuando todas sabemos que la ultraderecha de ahora ha sido la derecha de siempre. Por un lado, asusta, frustra

Argi dago emakumeen eskubideei edo neurri feministei buruz ari garenean, eskuina eta ultraeskuina beti daudela negazionismoaren abangoardian.

que siempre estén intentando que las mujeres retrocedamos en derechos. Por otro, quiero pensar que ese "odio" viene como respuesta a la fuerza que ha ido acumulando el movimiento feminista en los últimos años. Algunos tienen miedo de perder sus privilegios. Y Ayuso, a pesar de ser mujer, algún privilegio que otro también tiene.

Nunca podemos dar por sentados los derechos, y menos los que afectan a las mujeres. Hace poco, en Oklahoma se aprobaba la Ley del aborto más restrictiva de los Estados Unidos, "el

país de la libertad". Desde luego, esa libertad no existe en USA para las mujeres, para los afroamericanos o para las personas más vulnerables. El texto de dicho estado prohíbe la interrupción voluntaria del embarazo en casi todos sus supuestos y anima a los particulares a denunciar a quienes lo practiquen.

Según la Ley de Irene Montero, a partir de ahora las mujeres de 16 y 17 años podrán abortar sin permiso paterno y sin que les impongan un periodo de reflexión de 3 días. Este derecho ya estuvo vigente durante 5 años, hasta 2015, fecha en la que el PP lo eliminó. Es una obviedad que si una mujer puede decidir ser madre a los 16 ó 17, con todas las consecuencias que conlleva la maternidad, puede decidir también si aborta o no.

Sería impensable una Ley que decidiese sobre el cuerpo del hombre; no existe, claro. Imaginemos que existiese una Ley que recogiese que en X circunstancias el hombre se tiene que hacer una vasectomía... Inimaginable.

ERREDAKZIO TALDEA

Zuzendaria: Iván Giménez.

Koordinatzailea: Gorka Quevedo.

Lan taldea: Nerea Ispizua, Davide Cabaleiro, Nagore Uriarte, Haimar Kortabarria, Lander Zabaleta, Aiala Elorrieta, Miren Rubio

Argitarazle: ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00

Lege gordailua: BI-195-1998

www.ela.eus · landeia@ela.eus

Espanian, 12 probintzian ez da aborturik egin osasun zerbitzu publikoan azken 5 urteetan, eta 9 probintzian ez da aborturik egin 1985ean abortua despenalizatu zenetik.

Por un derecho real y efectivo

Con esta Ley avanzamos, pero el derecho tiene que ser real y efectivo y, para ello, será necesario elaborar un listado de personas objetoras de conciencia.

En España, hay 12 provincias que no han realizado un aborto en el servicio público de salud en los últimos 5 años, y hay 9 que no lo han hecho desde que el mismo se despenalizó en 1985.

Nos tendría que dar vergüenza como sociedad expulsar a las mujeres del lugar donde viven para poder interrumpir su embarazo. Ésta, sin embargo, ha sido una práctica muy habitual en Navarra durante años, donde las mujeres se veían obligadas a desplazarse a Gipuzkoa para interrumpir su embarazo.

Por el contrario, ningún hombre, por el hecho de haber nacido hombre, se tiene que ir fuera para recibir un servicio que, en teoría, debe estar

cubierto por el servicio público de salud.

Otra de las medidas que ha suscitado mayor polémica es la de la baja menstrual. Es inadmisibles la burla o caricaturización que se hace de las políticas feministas. Parece bastante sensato que quien no pueda ni levantarse de la cama por dolor, tenga derecho a una baja. Una baja que la persona no “coge” sino que se la da un o una médica facultativa, que previamente ha tenido que realizar un diagnóstico.

El sindicato UGT se mostró contrario a la medida porque considera que, con esta iniciativa, las mujeres pueden sufrir discriminación en la contratación. O sea, en vez de proponer que se persiga esa discriminación o que se sancione, prefieren no otorgar derechos a las mujeres.

Lo que tiene que haber es más formación feminista y de género en la judicatura o en la Administración pública, ya que las mismas, igual que cualquier otro estamento, están impregnadas de la cultura patriarcal de la que nuestra sociedad forma parte.

Muestra de ello fue la jueza que, en 2017, en un caso por abuso sexual, preguntó a una chica en sala: “¿Cerró bien las piernas? ¿cerró toda la parte de los órganos femeninos?”. Ante la denuncia por estas preguntas, la Comisión Disciplinaria del Consejo General del Poder Judicial archivó el caso en 3 semanas. No hubo

Prestakuntza feminista eta genero prestakuntza handiagoa egon behar da epailetzan edo administrazio publikoan. Gure gizartean nagusi den kultura patriarkalak biak baldintzatzen ditu.

consecuencia alguna para esta magistrada vitoriana.

Por tanto, en el caso de la baja menstrual, también la Inspección se tendrá que poner las pilas. El problema es que cuando la Inspección de trabajo carece de recursos humanos suficientes para hacer frente a todo el fraude laboral hay que priorizar y, normalmente, las cuestiones de género nunca son una prioridad.

Por concluir, no es que nos parezcan bien estas medidas, es que creemos que hay que ir mucho más allá. Se han dejado muchos otros aspectos en el tintero como la rebaja del IVA de los productos higiénicos, que contribuiría a reducir la brecha de género. En las empresas las mujeres deberían tener acceso a estos mismos productos (no solo en los centros docentes), se deberían regular permisos retribuidos recuperables de algunas horas para toda menstruación y un largo etc.

Ante la derecha, ¡más feminismo! ■



El impago de las deudas ilegítimas que ahogan a los países del Sur fue uno de los temas que se debatieron en el Foro.

Munduko langileriarekin saretzeko espazioa

ELAk parte hartu zuen maiatzaren 1etik 6ra Mexiko Hirian egin zen Munduko Gizarte Foroan.

> L. G. /J.L.

Munduko Gizarte Foroa espazio alternatiboa da, mugimendu sozialek eta sindikatuak esperientziak partekatzeko tokia, Foroaren leloak

dioen bezala, mundua aldatzeko espazioa.

Helburua mundua aldatzea bada, oso aproposa da foroa Maiatzaren Lehenean hastea, nola ez, langileen nazioarteko egunean. Zer egun hoberik foroari hasiera emateko maiatzaren lehena baino? Egundik horretan aldarrikatzen baita bizitzeko eta lan egiteko beste modu bat eta lan esplotazioaren, prekaritatearen eta gizarte eta genero desberdintasunaren abolizioa.

Oso hunkigarria izan zen Maiatzaren Lehena. ELAk parte hartu zuen konfrontatzeko prest diren sindikatu independenteen eta borrokalarien martxan. Nola ez, manifestazioa

Iraultza Plazatik abiatu zen. Mexikoko sindikalismo independentearen borroka nagusietako zera da, aurrez aurre jartzea sindikatu sistemikoak eta Gobernuak babestutako sindikatuak (‘sindikatu charroak’). Azken sindikatu hauek urteak daramatzate ustelkeria kasuen erdigunean. Enpresek dirua ematen diete murrizketa neurriak onartzearen truke eta borrokatu nahi duten langileak beldurrarazteko. Zoritxarrez, Euskal Herrian ere baditugu halakoak. Bizardunen kantak dioen bezala, ‘badakigu nortzuk diren’.

Milaka lagun izan ziren sindikatu independenteen martxan, Mexiko Hiriko kale nagusietan zehar.

Aldarrikapen ugari ziren: lanekoak eta sozialak; lurraren defentsa; elektrizitaterako eskubidea; pentsioa izateko eskubidea; plataforma digitaletako langileentzako lan baldintza duinak; eta nola ez, sektore klasikoen aldarrikapenak.

Hiriko hainbat tokitan mintegi eta hitzaldiak izan ziren mugimendu sozial eta sindikalek beren aldarrikapenak, garaipenak eta bizipenak azaltzeko. Gu hainbat mintegitan izan ginen: Zor ilegitiomaren Abolizioaren aldeko Foroan (SMEren egoitzan, Mexikoko Elektrizisten Sindikatuan); lan erreformak eta askatasun sindikala, emakumeak eta ekonomia informala eta Mendebaldeko Saharako hitzaldietan (Meatzaritzaren Jauregian); eta etxebizitzari buruzkoan (Mexiko Hiriko Museoa). Izan ere, bi aldiz aktiboki parte hartu genuen gure esperientziak kontatuz, bai zor ez legitimoarenean (Janire Landaluze), bai emakumeak eta ekonomia informalarenean (Leire Gallego).

Nazioen arteko elkartasuna

CADTMko mintegian Eric Toussainten erakusketa izan zen (ELAren kolaboratzailea izan da Toussaint). Gogorazi zigun herrialdeek duten zor publikoa hazten ari dela urtero, ito egiten dituela beren herriak, eta kasu askotan jasanezina edo ordainezina dela, eta, gainera, legez kanpokoa ere kasu batzuetan, zor hori sortu den moduaren arabera. Zorra kasu bakoitzean ikuskatu behar da, eta eten edo deuseztatu egin behar da, gero eta pobretuago dauden herrialdeetan gizarte gastuan inbertitzea eragozten badu. Adibide positiboak ere badira. Herrialde batzuek zorra etetea edo zati bat parkatzea lortu dute, adibidez, Ekuadorren Correa presidentearekin, 2008an, edo Argentinan, 2001ean.

Emakumeak eta ekonomia informala mintegian egiaztatu genuen emakumeek era guztietako indarkeria jasaten dutela: fisikoa, sexuala, ekonomikoa, lanekoa... Honduras, El Salvador edo Tunisia bezalako herrialdeetan ekonomia



Leire Gallego, Mikel Noval y Janire Landaluze conformaron la delegación de ELA en el FSM de México.

El Foro Social Mundial es un espacio alternativo en el que cientos de movimientos sociales y organizaciones sindicales se unen para compartir experiencias con el objetivo de cambiar el mundo.

informala %86, %70 eta %44koa da, hurrenez hurren. Gizonek ere osatzen dute ekonomia informal hori, baina emakumeei eragiten die neurri handiagoan, eta, gainera, beren familiez arduratzen dira, adibidez, beren hurrekin ondoan lan egiten duten emakume saltzaileak, edozein indarkeria motaren beldurpean.

Etxebizitzaren gaiari dagokionez, interes handikoa izan zen etxebizitza maizterren sindikatuko Carme Arcarazo lankideak kontatutakoa. Kataluniako etxebizitzaren egoera azaldu zuen (5 urtetan bikoiztu dira alokairu prezioak, etab.), baita alternatibak aurkeztu ere. Kasu honetan alternatiba ekonomikoki independentea den sindikatu bat da, 3.000 afiliatu dituena eta Blackstone edo Goldman Sacks bezalako funts

putre edo inbertsio handiei aurre egiteko gogoia duena.

Azkenik, RADSeko (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa) kideek Mendebaldeko Saharako giza eskubideei buruz eman zuten hitzaldira joan ginen. Gaur arte saharar herriaren aurkako gerra krimenak egiten jarraitzen dela azaldu zuten, atxiloketa arbitrarioak, torturak eta hilketak ere egunerokotasunaren parte baitira, bere aberastasun natural handiengatik, hala nola fosfata, eguzki energia edo eolikoa.

Foroari buruzko askoz gauza gehiago kontatu litezke, jakina, herrialde askotako militanteekin partekatu ditugu esperientziak, eta ikasi dugu nola antolatzen diren borrokak gurearen oso bestelako testuinguruetan. Hala ere, errealitateak oso desberdinak direla jakinda, puntu komun ugari daude sareak ehuntzeko, gero ikasteko. ELAk bere sigletan daraman 'elkartasuna' hitza mundu osoko langileriari aplikatu behar zaio. Gora munduko langileria! ■



Energia prezioen iruzurra

Gure menpekotasun energetikoa da arazo nagusia, ez energiaren gehiegizko prezioa

> Ainhara Plazaola

Beste herrialde batzuen eta energia fosilen menpe bizi gara, eta biek ala biek behar dute irtenbidea. Inflazioa geldiarazteko neurriek ez dute arazoa konponduko eta egoera are gehiago okertuko dute, ez bada berehala martxan jartzen trantsizio energetikoa.

Energiaren arazoa estrukturala da, Ukrainako gerra baino askoz lehenago hasi zen. Gerrak herrialde batzuen baliabide naturalekiko dugun dependentsia bistaratu du,

baina arazoa zaharra da. Gure eredu energetikoa kanpotik ekartzen ditugun energia fosiletan oinarritzen da, eta hori konpondu beharreko arazoa da.

Inflazio maila altua zen gerra lehertu aurretik. Zergatik? Bi arrazoi nagusi daude: lehenik eta behin, etorkizunean energia fosilen eskasia egongo delako eta horrek espekulazioa eragingo duelako; bigarrenik, elektrizitatearen prezioa finkatzeko sistema. Bi faktore horien ondorioz, energia enpresak aberasten ari dira herritar guztien kontura.

“Es necesaria una transición energética basada en las renovables, una gran reducción del consumo y una transición ecológica de la industria”.

Egoera hau iraultzeko neurriak hartu behar dira; orain arte hartutakoek, ordea, ez dute balio. Ez da irtenbide egokia erregai litroa 20 zentimo merketzea edo elektrizitatea ekoizteko gasaren prezioa 50 eurora mugatzea, are gutxiago, diru publikoa baliatzen bada edo kontsumitzaileek ordainduko badute. Iragarritako neurriek enpresa energetikoen irabaziak diru publikoz bermatzea dute helburu, eta berriro ere langileok ordainduko dugu krisia. Onartezina da diru publikoa erabiliz energiarekin espekulatzeko multinazionalen irabaziak bermatzea. Enpresa horiek izugarritzko irabaziak izan zituzten iaz energiaren prezioaren igoera izugarriaren ondorioz. Bitartean, langileok ari gara krisia ordaintzen, eta ez dago bidezko trantsizio baterako aurrerapausurik.

Aldarrikapenak

Sistema energetikoa aldatu beharra dago gehiegizko prezioei aurre egiteko. Lehenik eta behin, energia fosilekiko dugun menpekotasunari aurre egin behar zaio, elektrizitatearen prezioa ezartzeko sistema aldatu, eta produktu energetikoen prezioak mugatu. ELAn argi daukagu sistema errotik aldatu behar dela eta neurri sendoak eskatzen ditugu:

- Abian jartzea energia fosilen menpekotasuna gainditu eta berriztagarrietan oinarritutako sistema batera eramango gaituen bidezko trantsizio energetikoa.
- Produktu energetikoen prezioak kontrolatzea eta mugak jartzea.
- Energia sektorea publikatzea, kontrol publiko eta sozialarekin.

- Energiarako eskubidea oinarritzko eskubide unibertsal gisa onartzea.

- Elektrizitatearen prezioa finkatzeko sistema aldatzea, ez dezagun ordaindu energia guztia iturri garestienaren prezioaren arabera.

- Konpainia elektrikoek jasotzen dituzten ezkutuko bidesariak kentzea.

- Langileon erosahalmena mantentzeko soldatetan KPlaren goera bermatu behar da.

- BEZaren jaitsiera behin betiko aplikatzea.

- Energia merkatu logika guztietatik kanpo geratzea, eskuragarria izatea eta berriztagarrietan oinarritutako sistema garatzea.

- Enpresa energetikoek lortzen dituzten etekinengatik ordaindu beharreko zergak igotzea.

- Bidezko trantsizio baterako ekonomia birkokatzea, produkzio eredu aldatzea eta sektore estrategikoetan inbertsio publikoa handitzea.

Eredua energetikoa aldatu

Bidezko trantsizio energetikoa gauzatzeko egungo eredu energetikoa aldatu behar da. Bi dira eredu horren ezaugarri nagusiak: energia fosilen gehiegizko pisua eta energia kontsumo izugarria.

Sarritan entzun dugu energia berriztagarriak ekoiztea dela soluzio bakarra, eta enpresa elektrikoek argudio hori erabitzen dute beraien megainstalazioak zurrizteko. Baina energia berriztagarriak ez dira energia fosil guztiaren alternatiba. Elektrizitatea sortzeko erabiltzen direnean, energia fosilek berriztagarriek ordezkatu ditzakete, baina denak ez du elektrizitatearekin funtzionatzen.

Garraioan erabiltzen den energia fosila berriztagarriengatik ordezkatzeko, milioika auto

“Hay que empezar por combatir nuestra dependencia de las energías fósiles, cambiar el sistema de fijación del precio de la electricidad y limitar los precios de los productos energéticos”.

elektriko beharko lirateke, eta hau materialki ezinezkoa bihurtzen ari da, ez baita egongo teknologia hori guztia garatzeko material nahikorik. Etorkizuneko garraioa kolektiboa eta elektrikoa izango da, baina dugun gehiegizko mugikortasuna ere asko murriztu beharko da.

Sektore industrialei dagokienez, ez da beti posible izango erabiltzen den gasa eta beste erregai batzuk berriztagarriekin ordezkatzeko. Horregatik, ezinbestekoa izango da industriaren trantsizio ekologikoa egitea eta zer eta nola ekoiztu birpentsatu beharko dute enpresa askok bideragarriak izaten jarraitu nahi badute.

Energiaren gehiegizko prezioa icebergaren punta besterik ez da, atzean dagoen arazoari erantzun eta gizarte osoarentzat bidezkoak diren neurriak hartu behar dira: beharrezkoak dira berriztagarrietan eta kontsumoaren murrizketa handian oinarrituriko trantsizio energetikoa eta industriaren trantsizio ekologikoa. Ez dago beste alternatibarik. ■

ANTE LA EMERGENCIA ECOLÓGICA, ¡ORGANIZACIÓN!

5 de junio, Día Internacional del Medio Ambiente. Cada año en esta fecha se supone que toca decir buenas palabras y aportar datos positivos, pero últimamente es imposible. Los retos que tenemos por delante son enormes. La crisis energética, la escasez de materiales diversos y el cambio climático, entre otros, los más graves.

Tenemos más claro que nunca que debemos cambiar el sistema energético. Nuestra dependencia de las energías fósiles es enorme, y esto afecta a la economía y al medio ambiente. Si no llevamos a cabo una transición energética justa tendremos un futuro oscuro, tanto a la hora de defender empleos dignos como a la hora de ganarnos la vida.

El cambio climático ha venido para quedarse, y cada vez se producen mayores desastres naturales. No sólo en las islas del Pacífico, también causa numerosos daños en nuestro país. Según la Organización Mundial de Meteorología, en 2021 se han registrado los peores datos de la historia en la acumulación de gases de efecto invernadero, el aumento del nivel del mar y el calentamiento y acidificación de los océanos.

Los últimos años han sido duros, y los siguientes también lo serán, porque no se toman medidas para que la situación sea otra. La emergencia ecológica traerá tiempos de gran incertidumbre, y sabemos que en este tipo de situaciones las crisis las pagamos los trabajadores y trabajadoras. Así que organicémonos para llevar a cabo una transición justa, ecológica y social. Pongamos en el centro la vida de la clase trabajadora y defendamos las cosas realmente importantes. No tenemos otra salida. ■



Mixel omentzeko jaia

ELAko eta Manu Robles-Arangiz Fundazioko ordezkaritza zabal batek Mixel Berhokoirigoinen aldeko omenaldian parte hartu zuen maiatzaren 17an, Ainhizen

> Xabi Anza

Ainhize-Monjose

Urtero, urtarrilean, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak bere urteurrena ospatzen du, baina pandemiaren ondorioz, aurten maiatzera arte atzeratu behar izan du ospakizuna. Hori dela eta, asanblea eta jaiarekin batera, merezitako omenaldia egin zitzaion duela urtebete hil zen Mixel Berhokoirigoini, hau da, Ganbarako lehen lehendakaria izan zenari.

Omenaldian ELAko ordezkaritza zabala izan zen, Mitxel Lakuntza eta Amaia Muñoa buru zirela (sindikatuako idazkari nagusia eta

ondokoa), baita Joxe Elorrieta eta Adolfo Txiki Muñoz idazkari nagusi ohiak ere, sindikatuko eta Manu Robles-Arangiz Fundazioko beste kide batzuekin batera, hala nola Txetx Etcheberry Iparraldeko arduraduna. Amaia Muñoak, bertaratutako guztien aurrean egindako hitzaldian azpimarratu zuen Laborantza Ganbararen aldeko borroka sozial, politiko eta judiziala abian jarri zenean Mixel eta ELBko sindikalistak ezagutzeak berebiziko garrantzia izan zuela sindikatuarentzat.

Iker Elosegi Laborantza Ganbarako egungo koordinatzaileak egindako gidoiari jarraituz, eta Txomin Hegi eta Marie-Agnes Gorostiagaren gidaritzapean, omenaldian parte

hartu genuenok Mixelen ibilbide sindikal eta politikoa ezagutu ahal izan genuen. Era guztietako protagonisten hitzaldi labur eta hunkigarriak tartekatu ziren, hala nola Jean-Rene Etchegaray Iparraldeko Mankomunitateko egungo lehendakariarena edota Anaiz Funosas Bake bidea mugimenduko lehendakariarena. Hainbat lekuko ziren bertan: borroketako protagonista ugari, Ganbarako egungo langileak, nekazariak, hautetsiak eta gizarte zibileko eta Iparraldeko erakundeetako pertsona esanguratsuak. Herri bazkarian izan ziren denak eta kontzertuez disfrutatu zuten gauera arte.





Manu Robles-Arangiz Fundazioko militanteek aukera baliatu zuten Berhokok berak Fundazioko eta Biziko militantei emandako hitzaldi eta formazioen transkripzioak jasotzen dituen argitalpen bat banatzeko. Balio politiko handiko materiala da eta laster banatuko da Hegoaldean. Dokumentuak Iparraldeko belaunaldi militante baten ibilbide sindikal eta politikoa jasotzen du: Frantziako nekazarien sindikatua abandonatu izana, ELBren sorrera, inplantazioaren eta hazkundearen aldeko borroka, nekazaritza erakunde propio baten ideia, ELAren elkartzea, bakearen aldeko konpromisoa... "Mixelen koherenziari omenaldia egin nahi nioke", adierazi zuen Txetx Etcheverryk. Izan ere, Mixel gizon koherentea izan zen, engaiamendu osoko gizona. ■



MIXELEK ESANAK

"1960 arte, laborantza eremua eremu gelditua zen, hetsia, orokorki laborari jaunttoak, jabe handiak, zereal ekoizleak nagusi ziren: mundu gelditua zen".

"Taldeak, gizabanakoak, norberak baino arrazoi gehiago dauka".

"Hemen ere bi mutur badira: gauzak hor gertatzen direlakoan tokikoari besterik ez bagara interesatzen, bere horretan mugatzen den halako nazionalismo batean murgildurik gaude. Alderantziz, beste gainerako guzia atzerakoia eta lanjerosa dela kontsideratuz mutur unibertsalean kokatzen bagara bakarrik, joko kanpoko unibertsala egiten dugu. Batek lokalismoa eta nazionalismo lanjerosa sortzen du eta arrisku berdinak dakartzan joko kanpo egote besteak".

"Egia une traketsak izan digula: jende batzuekin biziki hurbil nintzen eta ez dute ulertu eta horiekin, beraz, moztura izan da".

"ELB abertzalea uhartearen eta kontinentearen arteko zubi bat da; eta engaiatzen diren jendeak batzuetan zubia zeharkatzen dute, batzuetan gibelera itzultzen dira; eta zubi hori, moztzen bada, ez da gehiago zubirik".

"Nik uste dut pozak eta frustrazioak momentu biziki zehatzak direla. Gehienetan ez da ez bata ez bestea. Lana da eta halako batean, emaitza da etsigarria ala ez. Baina nekezia handi horretan garrantzitsuena lagunarteko giroa da. Ahal den neurrian, beti beharrezkoa da lagunarteko giroa biziartzeko baliabideak sortzea. Erabakigarria da. Bernard Lambert-ek zioen: "iraultzaile triste, iraultzaile herresta da". Zinez arrazoi du".

"Euskal Herriko Laborantza Ganbara izena ez da ustekabetik atera; izanak juntatzen du izena".

"Euskal Herrian eraikuntza masiborako armak ditugu".

"Bake zuzen eta iraunkor baten alde engaiatu naiz, aurkariaren umiliazioan finkatua den baketze baten kontra diren parametroetan eraikitzen dena. Hau ere nahi dudana Euskal Herriaren osagaietarik bat da: librea, demokratikoa, elkarkidea, mobilizatua, eginkorra!"

"Euskal Herria ene ustekabeko lurra da".

FEDERAZIO KONGRESUAK

CONGRESOS FEDERALES

ekaina 2022 junio

14 >>> Donostia · ZERBITZUAK

15 >>> Burlata · GIZALAN

16 >>> Gasteiz · INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA



**benetan
garrantzitsuak
diren gauzak**

lo esencial, lo más importante

Aktibatu Lortu Zaindu



Esta revista se
elabora con papel
y procedimientos
sostenibles

Franqueo concertado

NO 08/129